



Bizkaia

Batzar Nagusiak
Juntas Generales

ELA-LAB-CCOO-UGT-ESK-USO

eguna
fecha

2017 API: 00

Sarrera-Erroidea/ Registro de Entrada

ZK/Nº

1199

ordua / hora

11:56

Bilbon, 2017ko apirilaren 3an

Bizkaiko BNetako Mahaia
Mesa de JJGG de Bizkaia

Jaun/andre agurgarri horiei,

Estimados señores/as,

ELA, LAB, CCOO, UGT, ESK eta LSB sindikatuok hurrengo eskaera Bizkaiko BNetako mahaira zuzentzen dugu. Alderdi guztiei zabalduko duzelakoan eta kontutan hartuko dutelakoan bere eztabaidarako.

Galderarik edo zalantzarik sortzen bazaizue, pozik erantzun eta argituko dizkizuegu, gura duzuenean.

Los sindicatos ELA, LAB, CCOÓ, UGT, ESK y USO dirigen la siguiente petición a la Mesa de las JJGG, para que se dé traslado a los distintos grupos políticos y sea tenida en cuenta para su debate.

Nos mostramos a su total disposición ante cualquier tipo de aclaración o duda que pueda planteárseles.

Agur, begirunez.

Reciban un cordial saludo.

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

LAB

CCOO
herritarrentzako zerbitzuak

UGT
Euskadi

esk

LSB-USO
LANGILE SINDIKAL BATASUNA
UNIÓN SINDICAL OBRERA

Behean sinatzen dugun sindikatuok Bizkaiko Batzar Nagusietan³ ordezkatuta zaudeten alderdi politikooi Bizkaiko Foru Aldundia sustatzen ari den tarifa-bateratzearen eredu eztabaidatzeko eskaria luzatzen dizuegu idatzi honen bidez.

Gure ekarpenak doazkizue hemen, Bizkaian Mugikortasunerako Agintaritzak laster garatu beharko duen tarifa-sistema bateratuan kontuan hartu, aztertu eta txertatzeko aukera izateko.

2014an egin genuen adierazpenetik abiatuta, Bizkaian txartel bakarra izatearen aldeko irizpideen edukia eguneratzen dugu.

- **PREZIO BERA, TARIFA BERA, EDOZEIN GARRAIOBIDE ERABILTZEKO.**

BGPK eta BFAK egun sustatzen duten ereduan ez bezala, non metroko bidaiaik saritu/merkatu eta gainerako operatzaileenak zigortzen/garestitzen diren.

- **ZENBAT ETA GARRAIO PUBLIKOA GEHIAGO ERABILI, HAINBAT ETA MERKEAGOA TXARTELA**

Hileko txartelen erabiltzaileak dira bidaia gehien egiten dituztenak, eta fideltasunik handiena diotenak garraio publikoari. BIDAI txartel berrikin, ordea, metroan % 30 eta Euskotrenen % 50 garestitze neurrigabea jasango dute.

- **TXARTELAREN PREZIOA PERTSONEN ERRENTAREN ARABERAKOA IZATEA.**

Diru sarrera txikienak dituztenek garraio publikoa erabiltzea errazteko urratsak eskatzen ditugu, adinarengatik eta egoera bereziengatik soilik merkatzearen sistema gaindituz.

- **ZERBITZU PUBLIKOA ETA KALITATEZKOA BERMATZEA.**

Herritarrei ahalik eta garraiobiderik onena bermatzeko eskatzen dugu ea, ondorioz, dauden lanpostuak ere ziurtatzea. "Metro" sistema lehenetsi eta gainerako operatzaileak baztartzentzituen eredu alboratu behar da.

- **ERAKUNDE BAKARRA GARRAIO PUBLIKOAREN OPERATZAILE GUZTIAK KOORDINATZEKO.**

Bizkaiko Mugikortasunaren Agintaritza sortzean operatzaileak elkarren osagarri izatea sustatu behar du, bikoizteak eta elkarren arteko lehiak saihestu eta, hartara, zerbitzuaren kalitatea hobetzeko. Eragile sozialen eta erabiltzaileen iritziak eta parte-hartzeak ere lekua izan behar du erakunde horretan.

- **BIZKAIA OSOA ERABILGARRIA.**

Bizkaiko Garraio Partzuergoak proposatzen duen gune-sistemak hiriburutik urrunen dauden udalerriak zigortzen ditu, metroaren sistema bateratutik kanpo ere utziz. Guk Bizkaia osoarentzat justuagoa izango den sistema proposatzen dugu.

Horregatik guziarengatik, ELA, LAB, CCOO, UGT, ESK eta USO sindikatuok Bizkaiko Garraio Partzuergoari eta Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen diegu, batetik, **bertan behera uzteko** berehala BIDAI 50, 70 eta ORO txartelen tarifa-igoera neurrigabea eta, bestetik, Bizkaiko tarifa-bateratzearen sistema berriro pentsatu eta eredu berriak gure idatzi honetan eta 2014ko adierazpenean esandako irizpideak kontuan hartzeko.



Los sindicatos abajo firmantes quieren hacer llegar esta comunicación a los diferentes grupos políticos representados en las Juntas Generales de Bizkaia, a fin de que se proceda al debate del modelo de integración tarifaria que está impulsando la Diputación Foral de Bizkaia.

De este modo les hacemos llegar nuestras aportaciones para que sean tenidas en cuenta, y puedan ser analizadas y valoradas para su inclusión en el Sistema Tarifario Integrado que la Autoridad de la Movilidad en Bizkaia deberá desarrollar en breve espacio de tiempo.

Partiendo de la declaración realizada en marzo de 2014, actualizamos el contenido a las premisas a favor del Billete Único en Bizkaia.

• **MISMO PRECIO MISMA TARIFA INDEPENDIENTE DEL MODO/S DE TRANPORTE UTILIZADOS.**

Frente al modelo impulsado actualmente por CTB y DFB que prima y bonifica los desplazamientos en metro, y penaliza los viajes que se hacen en el resto de operadores.

• **A MAYOR UTILIZACIÓN DEL TRANSPORTE PÚBLICO MAYOR DESCUENTO EN EL PRECIO DEL BILLETE.**

Las personas que utilizan los billetes mensuales son quienes más viajes realizan y quienes mayor fidelidad tienen con el transporte público, sin embargo con los nuevos billetes BIDAI serán quienes soporten un incremento de tarifas desproporcionado del 30% en Metro y del 50% en Euskotren.

• **EL PRECIO DEL BILLETE DEBE SER ACORDE A LA RENTA DE CADA PERSONA.**

Solicitamos que se den pasos para facilitar el acceso al transporte público a las personas que tienen menores ingresos, y se supere el sistema actual de descuentos por edad.

• **GARANTÍA DE UN SERVICIO PÚBLICO Y DE CALIDAD.**

Requerimos que se garantice el mejor transporte posible a la ciudadanía y como consecuencia de ello, la garantía de los puestos de trabajo existentes Se debe evitar a toda costa crear un sistema de transporte que discrimine al resto de operadores frente al "sistema metro".

• **UN ENTE ÚNICO QUE COORDINE A TODAS OPERADORAS DEL TRANSPORTE PÚBLICO.**

La creación de la Autoridad de Movilidad de Bizkaia (AMB) debe potenciar la complementariedad entre las empresas operadoras y evitar las duplicidades y la competencia comercial entre las mismas, mejorando así la calidad del servicio. También debe dar cabida a la opinión y participación de agentes sociales y personas usuarias.

• **UTILIZABLE EN TODO BIZKAIA.**

Frente al sistema zonal propuesto por el Consorcio de Transporte que penaliza a los municipios que se sitúan más lejos de la capital, y que a su vez son los que no pueden acceder al sistema integrado de metro, proponemos un sistema más justo para todo el territorio de Bizkaia.

Por todo lo anterior, los sindicatos ELA; LAB, CCOO, UGT, ESK y USO, solicitamos al Consorcio de Transportes y a la Diputación foral de Bizkaia, por un lado que **retire inmediatamente la subida de tarifas absolutamente desproporcionada para los billetes BIDAI 50, 70 y ORO**, y por otro que se replantee el sistema de integración tarifaria de Bizkaia y que el nuevo modelo tenga en cuenta las pautas ofrecidas en este documento, así como en la declaración original de 2014.



Gobernación
Juntas Generales

Bilbao, a 3 de abril de 2017